



HERNANI Ekainak 13



Bertan egon ziren hiru sagardotegien ordezkariak Pomme D'Or sariak jasotzen.

[albisteak//POMME DOR SARIA](#)

'Pomme D'Or' saria, Zapiain, Astarbe eta Bereziartuarentzat

Astigarragako Zapiain, Astarbe eta Bereziartua sagardotegiek Frankfurturten jaso zuten saria aurreko asteburuan

ASTIGARRAGA

2016/04/16 00:00 Larunbata

Apfelwein Weltweit Nazioarteko Sagardoan Azoka burutu zuten aurreko asteburuan Alemaniako Frankfurt hirian. Eta bertan eman zieten Pomme D'Or (edo Urrezko Sagarra) nazioarteko saria Astiga-

rragako Zapiain, Astarbe eta Bereziartua sagardotegiei.

Sagardogileen Elkartek saridunak zoriondu ditu.

Lau sari, Astigarragara

Guztira lau sari irabazi dituzte bertako sagardotegiek. Zapiainek bi: bata bere sagardo natural bereziagatik, eta bestea, merkaturatu berri duen Bizi-Goxo postrerako sagardoagatik. Astarbek Pomme D'Or bat, ByHur, sagardo apardunagatik. Eta Bereziartuaren sagardo naturala izan da laugarren sariduna.

«Sagardotegiak egiten ari diren lana erakusten dute»

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek Kronikara bidalitako prentsa-oharraren bidez, hiru saridunak zoriondu nahi izan ditu, Sagardogileen Elkarteko Astarbe eta Bereziartua, baita Zapiain ere.

Elkartearen ustez, «emaitza hauek erakusten dute gure sagardotegiak egiten ari diren lana, eta lan horrek nazioartean duen errekonozimentua».

Txiokatu

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*

Bidali

Aurreikusi